

THINK TANK

Nafarroa Kultura
Cultura Navarra

Think Tank. Hausnarketa-eremua eta pentsamendu-topaketak		
7. THINK TANK LABORATEGIA: Kultur bitartekaritzaz hausnartzen		
TOKIA: Artxibo Nagusia. maiatzaren Bia, z.g. 31001 Iruña _ Maiatzaren 22a		
ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00etara	IKASLE KOP:	20
Email: plancultura@navarra.es	TELEFONOA	848 427184
Zer da Think Tank? <p>CNK pentsamendu-foroa da, Nafarroako kulturari lotutako ideiei buruzkoa. Gizarte zibilaren eta administrazio publikoen partaidetza-plataforma da, zeinean ezagutzak eta ideiak partekatzen baitira gaiaren araberako foroetan parte hartuta.</p> <p>Idea-laborategia izan daiteke Think Tank-en euskarazko ordaina. Horixe lortu nahi baitu, hots, ideiak landu eta partekatu, aldi berean igortzailea eta hartzailea izan, eta adimen kolektiboak landu Nafarroako kulturari eta gizarteari gaur egun interesatzen zaizkien gaiei buruz.</p> <p>2018tik aurrera izango dira laborategi horiek erreferentzia Nafarroako kulturaren, Kulturaren Nafarroako Behatokiaren abiaraztearekin lotuko baitira, eta arteak, ekonomia, posizionamendua, berrikuntza, kontzeptuak, garapena, gaurkotasuna eta etorkizuna, eta antolakuntza jorratuko dituzte ildo nagusi gisa.</p>		
LABORATEGIA: Kultur bitartekaritzaz hausnartzen		
<p>Bitartekaritza modan dagoen hitza da. Askotariko proposamenak eta jarduerak aurkezten dira hitz honen bidez. Bitartekaritza da "Oro"? berria. Orduan, zertaz ari gara bitartekaritzaz hitz egiten dugunean?</p> <p>Jardunaldi honetan hitz honen oldarraz, eta artearen eta komisariotzaren norabide hezitzailea bezalako beste fenomeno batzuetan izan duen eraginaz eztabaidatuko dugu, eta kontzeptu horri lotzen zaizkion jarduera mota ezberdinak proposatuko ditugu.</p> <p>Praktika-mota horien barruan sar daitezkeen proiektuak aztertuko dira eta horietan sor daitezkeen arazoak izango dira hizpide, esaterako, erakundeek, artistek edo bitartekariak ikus-entzuleekin ezartzen dituzten harremanetan sor daitezkeen tentsioak.</p>		
Hizlaria: Amaia Arriaga eta Imanol Agirre		
<p>Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle eta ikertzaile, eta EDARTE ikerketa-taldeko kide dira. Hainbat ikerketa-proiektu eta ezagutzaren transferentziarako kontratu garatu dituzte arte- edota kultur ondarearen bitartekaritzaz, zein gazteek kulturarekin duten harremanaz, betiere ikuspegi hezitzaile batetik begiratuta. Proiektu horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke: Ikusizko arte-prestakuntza Montevideo hiriko gizarte eta kultur erakundeetan (Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia), ikusizko kultura sortzaile gazteak. Gaitasun eta jakintza artistikoak bigarren hezkuntzan (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa). Museoak eta erabiltzaileak. Dilemak eta esperientziak (Kultura Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Gobernua - Museoen Zerbitzua) eta "Arte guztia da garaikidea" proposamenerako bitartekaritza-proiektuaren diseinua Nafarroako Museoan, (Kultura Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Gobernua - Museoen Zerbitzua). Ondare historikoaren bitartekaritza eta zabalkunde ekintzei buruzko datu-basea sortzeko laguntza teknikoa (Kultura Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Gobernua - Ondare Historikoaren Zerbitzua).</p>		